



Esp. kodea: 2025DPRE0001

Gaia: 2026ko Udal aurrekontua

KH Txostena

TXOSTEN EKONOMIKO FINANTZIARIOA

ARRASATEKO UDALEKO 2026KO AURREKONTUA

LEHENA.- APLIKATU BEHARREKO LEGEDIA

Estaturako gaikuntza duten toki-administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 4.1 b) 2º artikuluan xedapena jarraituz, honako txostena egiten da. Berau burutzeko, erreferentzia gisa honako araudi hau hartzen da nagusiki:

- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen.
- 2/2004 Legegintzako Errege Dekretua, martxoaren 5koa, Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bategina onartzen duena.
- 500/1990 Errege Dekretua, apirilaren 20koa, Aurrekontu Erregelamendua.
- 128/2018 Errege Dekretua, martxoaren 16koa, Estaturako gaikuntza duten toki-administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duena.
- 21/2003 Foru Araua, abenduaren 19koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzkoa.
- 86/2015 Foru Dekretua, abenduaren 15koa, Gipuzkoako Foru Aldundiarena, Gipuzkoako toki-erakundearen kontabilitatearen arau-esparrua onartzen duena.
- 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa.

BIGARRENA.- HELBURUA

Txosten honen helburua da egiaztatzea Arrasateko Udalaren 2026 ekitaldirako Aurrekontu Orokorren proiektuak, txostena egiteko aurkeztutakoak, betetzen dituela Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren I. tituluan ezarritako

Kodea	J25/05908	Udala	Arrasate/Mondragón
CUDO	000.0055.AAA1DH7Z.V.zbr3		
URL	https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA1DH7ZV.zbr3		
Dokumentu hau elektronikoki sinatu da. Honen balioa egiaztatzeko, sartu zaitetz webgunean edo irakurri ezazu QR irudia			







Esp. kodea: 2025DPRE0001

Gaia: 2026ko Udal aurrekontua

baldintzak, edukiari, egiturari eta prestaketari dagokienez, bai eta aplikatu beharreko gainerako araudian xedatutakoa ere.

Hain zuzen ere, txosten hau egin da, 21/2003 Foru Arauaren 6. artikuluko hirugarren puntuko e) eta f) atalak errespetatuz:

“6. artikulua. Edukia.

(...)

3.- Aurrekontu orokorrean 1. eta 2. Idatz zatietan aipatutako agiriak ez ezik jarraiko hauek ere egon behar dira:

(...)

e) Ekonomia-finantzazko txostena; bertan sarreren eta aurreikusitako kreditu-eragiketen ebaluaziorako erabilitako oinarriak azaldu behar dira, eskatuko diren betebeharrei eta zerbitzuen funtzionamendu gastuei aurre egiteko kredituak aski direla frogatu behar da, hau da, aurrekontua orekatuta dagoela. Txostenean, gainera, udalak konpromiso kredituak finantzatzeko nahikoa baliabide dituen ere aztertu behar da, eta aztertu ere aparteko atal batean.

f) Aurrekontuko sarrera eta gastuetatik ateratzen den saldoa Kontuen Europako Sistemaren arauen arabera kalkulaturako finantzaketa-ahalmen edo -beharrarekin erlazionatzeko behar den informazioa.”

Gainera, eta aipatutako Foru Arauaren 14.4 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, txostena aurrekontu-espedientearen nahitaezko zatia da.

HIRUGARRENA.- AURREKONTU OROKORRA EGITEA ETA ONARTZEKO PROZEDURA

Aurrekontua zinegotzi delegatuak eta alkate-udalburuak egin dute, 21/2003 Foru Arauaren 14.1 artikuluaaren xedapena jarraituta. Prozedurari dagokionez ondorengo puntuak izan beharko dira kontuan:

- Udalbatzaren osoko bilkura da aurrekontu orokorra onartzeko organo eskuduna, gehiengo soilez.
- Hasierako onespina eman ondoren, 15 egun baliodunetz jendaurrean jarriko da, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratu ondoren. Epe horretan, interesdunek aztertu ahal izango dute eta erreklamazioak aurkeztu ahal izango dizkiote Osoko Bilkurari.
- Aurrekontua behin betiko onartutzat joko da epe horretan erreklamaziorik aurkeztzen ez bada; bestela, osoko bilkurak hilabeteko epea izango du erreklamazio horiek ebatzeko.
- Aurrekontu Orokorra, behin betiko onartu eta aurrekontu bakoitzaren kapituluka laburtuta, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, indarrean sartzen den unean.

Kodea	J25/05908	Udala	Arrasate/Mondragón	
CUDO	000.0055.AAA1DH7Z.V.zbr3			
URL	https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA1DH7ZV.zbr3			
Dokumentu hau elektronikoki sinatu da. Honen balioa egiaztatzeko, sartu zaitetz webgunean edo irakurri ezazu QR irudia				



Esp. kodea: 2025DPRE0001

Gaia: 2026ko Udal aurrekontua

Gainera, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen, 79. artikuluan ezartzen dena errespetatu behar da:

“79. artikulua. Herritarrek udal-aurrekontuetan gastu publikoko konpromisoak identifikatzen parte hartzea.

- 1. EAEko toki-erakundeek kontsulta edo deliberazio publikoko prozesuak egingo dituzte, beren ezangarrietara eta errealitatera ondoen egokitzen den moduan eta egokien irizten dieten kontuari edo kontuei dagokienez, erakundearen hurrengo ekitaldirako aurrekontuak prestatzen hasteko unean gastuari buruzko erabaki edo alderdi zehatzak definitzeko.*
- 2. Diru-sarrera publikoei buruzko erabakiak ezin izango dira deliberazio-prozesuen xede izan.*
- 3. Aurrekontu-arloko deliberazio-eremuei buruzko deliberazio-prozesuak ez dio eragingo toki-erakundeak aurreikusitako defizitaren, zor publikoaren eta gastu-arauaren helburuak betetzeari, ezta berankortasun-legerian hornitzaileei ordaintzeko aurreikusitako batez besteko epeari ere.*
- 4. Tokiko araugintza-abalaren bidez edo udal-erabakiaren bidez ezarriko dira parte hartzeko modalitate horren forma, prozedura eta edukia.”*

Beraz, toki-erakundearen Aurrekontu Orokorra izapidetzean nahitaezkoa da herritarrek parte hartzeko izapidea egitea. Kontuhartzaille honek egiazta dezakeena da, aurreko ekitaldietan bezala, dagokion herritarren parte-hartzean adosten diren gastuetarako kredituak esleitzen direla.

LAUGARRENA.- AURREKONTU OROKORRA EGITEKO EPEA

21/2003 Foru Arauaren 14. artikulua aurrekontua egiteko eta onartzeko prozedura eta epeak xedatzen ditu:

“14. artikulua. Gertutu eta onesteko eskumena.

- 1.- Toki erakundearen administrazioaren aurrekontua haren buruak prestatuko du; horretarako, hurrengo ekitaldirako aurrekontua egiteko behar diren gidalerro ekonomikoak eman abal ditu.*
- 2.- Administrazio organismo autonomo bakoitzaren aurrekontua, orokorraren osagai dena, basieran organo eskudunak proposatuko duena, atxikita dagoen toki erakundeko buruari bidaliko zaio irailaren 30a baino lehen.*
- 3.- Merkataritzako organismo autonomo eta sozietate publikoek udal toki erakundeko buruari 6. artikuluan ezarritako agiriak bidali behar dizkiote irailaren 30a baino lehen. Kontabilitate orri boriek oinarri hartuta, toki erakundeko buruak administrazio aurrekontuaren egitura ekonomikoari dagozkionak prestatuko ditu, artikuluan mailan gutxienez.*
- 4.- Aurreko idatz-zatietan aipatutako aurrekontuak eta aurreikuspen orriak oinarritzat hartuta, toki erakundeko buruak aurrekontu orokorra prestatuko du eta, Kontuhartzailletzak txostena eman ondoren, arauzko tramitazioa urriaren 15a baino lehen eginda, 6. artikuluan zehaztutako eranskinekin eta agiriekin bidaliko dio udalbatzari, hark onets dezan edo zuzen dezan edo itzul dezan.*

Kodea	J25/05908	Udala	Arrasate/Mondragón	
CUDO	000.0055.AAA1DH7Z.V.zbr3			
URL	https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA1DH7ZV.zbr3			
Dokumentu hau elektronikoki sinatu da. Honen balioa egiaztatzeko, sartu zaitetz webgunean edo irakurri ezazu QR irudia.				



Esp. kodea: 2025DPRE0001

Gaia: 2026ko Udal aurrekontua

5.- Onespén erabakia bakarra izango da eta bertan aurrekontu orokorreko aurrekontuak xehekatu behar dira; haiek ezin dira onetsi bereiz.

6.- Aurrekontu orokorreko aurrekontu bakoitza hasierako mentsik gabe onetsi behar da. Nolanabi ere, eragiketa arrunten ziozko sarrerak gutxienez gastu arruntak eta zorren amortizazio-gastuak bat eginez sortzen den kopuruaren beste izan behar dira.”

Ondorioz, aurrekontua egiteko eta onartzeko epeari dagokionez, espedientearen proposamen ugari egin dira. Kontuan hartu behar da, batetik, Ogasun Zinegotzia urriko hilabetean falta izan dela, eta bestetik, 2026ko ekitaldian onartu nahi den aurrekontuaren magnitudea dela eta, zirriborro ugari egin direla. Espedientea onartu aurretik, Gipuzkoako Aldundian, Udalaren finantza tutoretza duen konpromiso sailarekin bilera bat egin da azaroaren 5ean 11:30tan. Ondorioz, aurrekontuaren proiektua kontuhartzailearen esku jarri da 2025ko azaroaren 6ean. Beraz, urriaren 15a baino lehen, arau bereko 6. Artikuluan aipatzen diren dokumentu eta eranskin denekin udalbatzari bidaltzea ezinezkoa da. Gainera, oraindik, prestatutako aurrekontu orokorra proposamen bat soilik da, oposizioari entzun behar zaio eta proposatzen dituen aldaketak onartzen badira birformulatu egin beharko da. Azaroko ostegun denetan (6 eta 13an egin da eta 20 eta 27an egitea aurreikusten da) Ogasun Batzordeak egingo dira, beraz, proiektua bera ere ez da behin behinekoa eta aldaketaren bat balu, txosten eta eranskin guztiak aldatu beharko dira txosten hau barne.

BOSGARRENA.- AURREKONTU OROKORRAREN DOKUMENTAZIOA

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko 21/2003 Foru Arauaren 6. artikuluan arautzen da aztergai dugun espedienteak osatu behar duen edukia:

“6. artikulua. Edukia.

1. Toki-erakundearen eta haien organismo autonomoen eta partzuergoen aurrekontuetako bakoitzak honako hauek izango ditu:

- a) Ekitaldian zehar likidatu beharreko eskubide ekonomikoen gutxi gorabeherako diru-sarreraren egoera-orria.
- b) Gastuen egoera-orria, dagozkion betebeharrak, ordainketakoak zein konpromisokoak, betetzeko beharrezkoak diren kredituak jasoko dituen.
- c) Programa-taldeak deskribatzeko taulak, 12.2 artikuluan ezarritakoaren arabera.
- d) Aurrekontuaren edukia eta aurrekoarekiko dituen aldaketa nagusiak azaltzen dituen memoria, bai eta aurrekontua egiteko erabilitako irizpideak ere.
- e) Onartutako eta erabilitako konpromiso-kredituen eranskin bat. Eranskin horretan, aurrekontua aurkezten den egunean erakundeak izaera horrekin erabili dituenak jasoko dira, urte bakoitzeko bereizita; likidatu gabeko aurrekontuetan, egun horretan indarrean dauden kontsignazio guztiak jaso beharko dira.
- f) Ekitaldian zehar egin beharreko inbertsioen eranskina, Lurzorua Ondare Publikoari dagozkionak eta gainerakoak bereizita.

Kodea	J25/05908	Udala	Arrasate/Mondragón	
CUDO	000.0055.AAA1DH7Z.V.zbr3			
URL	https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA1DH7ZV.zbr3			
Dokumentu hau elektronikoki sinatu da. Honen balioa egiaztatzeko, sartu zaitetz webgunean edo irakurri ezazu QR irudia.				



Esp. kodea: 2025DPRE0001

Gaia: 2026ko Udal aurrekontua

- g) *Transferentzia eta dirulaguntza arruntan eta kapital-dirulaguntzen eranskin bat, Aurrekontuan aurreikusitako kapitulu horietako gastuak zehaztuta, baita aplikatu beharreko araudia eta emateko prozedura ere.*
- b) *Zorpetzeari buruzko eranskin bat, aurrekontu-ekitaldiaren hasieran eta amaieran erakundeak izango duen finantza-zorraren aurreikusitako mailarekin, aurreikusitako aldaketak eta interesen ordainketak zehaztuta.*
- i) *Langileen eranskin bat, aurrekontu-zuzkidura duten lanpostuen zerrenda indibidualizatuekin, ordainsariak eta gizarte-gastuak bereizita.*

2. *Enpresa-entitate publikoen, partzuergoen eta sozietate publikoen aurrekontuek honako agiri hauek jasoko dituzte:*

- a) *Aurreikusitako galdu-irabazien kontua.*
- b) *Aurreikusitako balantzua.*
- c) *Ondare garbiaren aldaketen behin-behineko egoera-orria.*
- d) *Azalpen-memoria, honako hauek jasoko dituen: aurreikuspenen egoera-orriak eta kontuak, aurreko ekitaldikoekin alderatuta aurkezten dituzten aldaketak eta horiek egiteko erabilitako irizpideak. Era berean, hurrengo ekitaldian eragina izango duten konpromiso ekonomikoen berri emango da.*
- e) *Transferentzien eta dirulaguntzen eranskin bat, arrunta eta kapitalekoa. Bertan, kontzeptu horiengatik egoera-orrietan eta aurreikuspen-kontuetan aurreikusitako gastuak zehaztuko dira, bai eta aplikatu beharreko araudia eta emateko prozedura ere.*
- f) *Zorpetzeari buruzko eranskin bat, aurrekontu-ekitaldiaren hasieran eta amaieran erakundeak izango duen finantza-zorraren aurreikusitako mailarekin, aurreikusitako aldaketak eta interesen ordainketak zehaztuta.*
- g) *Langileen eranskin bat, lanpostuen banakako zerrendarekin. Ordainsariak eta gastu sozialak bereiziz.*
- b) *Ekitaldian zehar esleitu edo egin beharreko inbertsioen eranskina, Lurzorua Ondare Publikoari dagozkionak eta gainerakoak bereiziz.*

3. *Aurreko 1. eta 2. paragrafoetan aipatutako agiriekin eta ondorengo agiriekin osatuko dituzte aurrekontu orokorrak:*

- a) *Aurrekontu orokorren edukia azaltzen duen memoria. Bertan, aurrekontuek aurrekoekiko dituzten aldaketen analisia jasoko da, aldaketa esanguratsuenak azpimarratuz, bai eta aurrekontu bakoitzaren eta Aurrekontua Beteazteko Arauan jasotako gainerako neurrien edukia ere.*
- b) *Tokiko sektore publikoaren aurrekontu bateratua.*
- c) *Aurrekontua Beteazteko Araua. Besteak beste, bermeak emateko eta zorpetzeko gehienezko mugak jaso beharko ditu, erakunde bakoitzari aplikatuko zaizkionak.*
- d) *Itxitako azken ekitaldiko aurrekontu orokorren likidazioa, lortutako gauzatze-mailari buruzko memoriarekin batera, eta uneke ekitaldiko gastuen eta diru-sarreraren gauzatze-egoerak, gutxienez lehen seihilekoari dagozkionak.*
- e) *Txosten ekonomiko-finantzario bat, honako hauek azalduko dituen: diru-sarrerak eta aurreikusitako kreditu-eragiketarik ebaluatzeko erabilitako oinarriak, eska daitezkeen betebeharrak eta zerbitzuen funtzionamendu-gastuei aurre egiteko kredituen nabikotasuna, eta, ondorioz, aurrekontua benetan berdinduta dagoela. Era berean, txostenak modu independentean aztertuko du konpromiso-kredituak finantzatzeko udal-baliabideen nabikotasuna.*
- f) *Aurrekontuko sarrera eta gastuetatik ateratzen den saldoa Kontuen Europako Sistemaren arauen arabera kalkulaturako finantza-keta-ahalmen edo -beharrarekin erlazionatzeko behar den informazioa.”*

Kodea	J25/05908	Udala	Arrasate/Mondragón
CUDO	000.0055.AAA1DH7Z.V.zbr3		
URL	https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA1DH7ZV.zbr3		
Dokumentu hau elektronikoki sinatu da. Honen balioa egiaztatzeko, sartu zaitetz webgunean edo irakurri ezazu QR irudia.			







Esp. kodea: 2025DPRE0001

Gaia: 2026ko Udal aurrekontua

Arrasateko Udalaren 2026eko ekitaldirako Aurrekontu Orokorren espedientean dagoen dokumentazioa aztertu ondoren, ikusten da 21/2023 Foru Arauko 6. artikululuan adierazitako dokumentazio osoarekin aurkezten dela.

Honako dokumentuez osatuta dago 2025DPRE0001 espedientea:

- Aurrekontuaren Proiektua.
- Alkatearen memoria.
- 2024ko aurrekontuaren likidazio laburpena.
- 2025eko aurrekontuaren aurrelikidazioa.
- Pertsonaleko eranskinak (plantila organikoa eta RPT-a).
- Inbertsioen eranskinak.
- Transferentzien eranskinak.
- Konpromiso kredituak.
- Gastuak programaka eranskina.
- Txosten juridiko-ekonomikoa Ordenantza Fiskalen hobariei buruzkoa.
- Diruzainaren txostena.
- Hirigintzako arlo buruaren txostena.
- Indarrean dauden kontratuen eranskina.
- Txosten ekonomiko finantzarioa.
- Maileguen egoera eta aurreikuspena.
- Aurrekontua exekutatze araua.
- Oposizioak 2025eko azaroaren 21an aurkeztuta proposamenak.

2025eko azaroaren 27an, arratsaldeko 5etan egingo da Ogasun Batzordea eta bertan erabakiko da diktamena. Behin diktamena dagoenean abenduaren 9an burutuko da Osoko Bilkura eta bere erabakia, batzorde informatzaileei igorriko zaie eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da behin behineko aurrekontua. 21/2003 Foru Arauaren 15.1 artikuluan ezarritakoari jarraiki, aipaturiko aurrekontuaren espedientea jendeari erakutsiko zaio Kontuhartzailletzan. Aurrekontua aztertu eta nahi bada erreklamazioak aurkezteko hamabost laneguneko epean. Aipaturiko epea igarotzen bada inolako erreklamazio edo oharpenik jaso gabe, Aurrekontua onartutzat joko da behin betiko, beste erabakirik hartu behar izan gabe. Ondoren, Behin betiko iragarkia argitaratuko da aurrekontuaren kapituluko laburpenarekin GAOn. Beraz, behin pauso horiek emandakoan, aipaturiko espedientean sartuko dira.

Aurrekontua Betearazteko Arauari dagokionez, adierazi behar dut, orain arte bezala, barne-kontrola arautzen dela. Aldez aurreko fiskalizazio mugatua ezartzen da, araudiak ezartzen dituen nahitaezko betekizunekin bakarrik; hau da, esku hartzeko dauden bitartekoekin bat etorriz.

Kodea	J25/05908	Udala	Arrasate/Mondragón	
CUDO	000.0055.AAA1DH7Z.V.zbr3			
URL	https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA1DH7ZV.zbr3			
Dokumentu hau elektronikoki sinatu da. Honen balioa egiaztatzeko, sartu zaitetz webgunean edo irakurri ezazu QR irudia				



Esp. kodea: 2025DPRE0001

Gaia: 2026ko Udal aurrekontua

Hauek dira aurrekontuetako konpromiso-kredituak:

Izendapena		2027	2028
Kap 4	Arrasateko Udala eta MUNDUKIDE Fundazioaren arteko Hitzarmena	20.000,00	20.000,00
GUZTIRA			40.000,00

Betetzen du 21/2003 F Aren 22.2 artikuluan ezarritakoa: "Etorkizuneko ekitaldi bakoitzera indarrean dauden konpromiso-kredituen zenbateko metatua ezingo da izan likidatutako azken ekitalditik ondorioztatutako eragiketa arruntengatiko baliabideen % 25 baino handiagoa, betiere 6.3.e) artikuluan eskatutako azterlanetik muga txikiagoa ondorioztatzen ez bada".

2024ko ekitaldiko eragiketa arruntzen zenbatekoa 39.590.849,34 eurokoa da.

Aipatu behar da, izapidetzen ari diren dirulaguntzak direla eta, agian, posible dela konpromiso-kreditu gehiago onartu behar izatea, hala badagokio.

5. UDALAREN AURREKONTUA

Udalaren 2026rako aurrekontua 81.967.418,88 eurokoa da.


Aurrekontuei buruzko Foru Arauaren 14.6 artikulua xedatzen duenez, eragiketa arruntengatiko sarrerak, gutxienez, izaera bereko gastuak gehi zorpetzeagatiko amortizazio-gastuak izango dira.

Udalaren aurrekontu-proiektuan, ohiko diru-sarrerak gastu arruntak gehi zorraren amortizazio-gastuak baino handiagoak dira (gaur egun ez du zorrik):

Diru-sarrera arruntak: $KAP(1,2,3,4,5) = 41.142.019,00 \text{ €}$

Gastu arrunta = $KAP(1,2,3,4) = 38.101.182,10 \text{ €}$

Kodea	J25/05908	Udala	Arrasate/Mondragón
CUDO	000.0055.AAA1DH7Z.V.zbr3		
URL	https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA1DH7ZV.zbr3		
Dokumentu hau elektronikoki sinatu da. Honen balioa egiaztatzeko, sartu zaitetz webgunean edo irakurri ezazu QR irudia			







Esp. kodea: 2025DPRE0001

Gaia: 2026ko Udal aurrekontua

Sarrera arruntak > Gastu arruntak + Zor guztien urteko kuota teorikoa

Aldea aurrezki garbi gordina da = sarrera arruntak – gastu arruntak = 3.040.836,90€

Aurrezki garbi doituia = (1–5 kap. sarreraren eskubide garbiak) – (1, 2 eta 4 kap. gastuak) – (Zor guztien urteko kuota teorikoa: orain artekoa*Interesak 0 dira (IDAE) eta berria* kontuan izanik lehen urtea karentzia urtea izan ohi dela) = 2.943.918,78€

AURREZKI GARBIA		ARRASATEKO UDALA
a	2026ko eskubideen prebisioa, erag. arruntetan (1-5. kap.)	41.142.019,00
b	2026ko obligazioen prebisioa, erag. arruntetan (1, 2 eta 4. kap.)	38.101.182,10
c=a-b	Aurrezki gordina	3.040.836,90
d	Finantza zama teorikoa, orain artekoa	96.918,12
e	Finantza zama teorikoa, berria	0,00
f=c-d-e	Aurrezki garbia, doitu aurretik	2.943.918,78
g	DGarekin finantzatutako gastu arrunta	0,00
h	Aurrezki garbia, doituia f+h	2.943.918,78

Azken zenbateko hau da 2026-12-31n lortuko litzatekeen aurrezki garbia, proiektuan aurreikusitako diru-sarrerak eta gastuak aurrekontuan ezarritako baldintzetan egikarituko balira, desbideratzerik gabe.

Diru-sarreraren aurreikuspenen ebaluazioa

Arrasateko Udaleko Diruzainak, diru-sarreraren aurreikuspenen inguruan honako txostena egin du:

“(…)KONTUAN HARTUTA, oraindik behin behineko onarpena bada ere, 2026ko Ordenantza Fiskalek ondorengo aldaketak aurreikusten dituztela, laburbilduta:

- Zergei dagokionez, ondorengo aldaketak proposatu dira:
 - Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga: Hirilurren karga tasa orokorra %2 igo. (%0,2508)
 - Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga: Indizea %2 igo. (1,09)
 - Trakzio Mekanikodun Ibilgailuen gaineko Zerga: %2 igo.
 - Hirilurren Balio Gehikuntzaren gaineko Zerga: karga %2 igotzea tramo guztietan.
- Tasei dagokienean, ondorengo igoera proposatu da:
 - Hiri hondakin solidoak biltzeko zerbitzuaren tasa (Zaborra): %3,6 igo.
 - Edateko uraren tasa (Ura): %5 igo.
 - Igoera orokorra %2, salbu ondorengo tasetan:

Kodea	J25/05908	Udala	Arrasate/Mondragón	
CUDO	000.0055.AAA1DH7Z.V.zbr3			
URL	https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA1DH7ZV.zbr3			
Dokumentu hau elektronikoki sinatu da. Honen balioa egiaztatzeko, sartu zaitetz webgunean edo irakurri ezazu QR irudia				



Esp. kodea: 2025DPRE0001

Gaia: 2026ko Udal aurrekontua

- *Tutoretzapeko etxebizitzaren tasa*
- *Etxez etxe laguntza zerbitzuaren tasa*
- *Atarte zerbitzuari dagokion tasa*
- *Establezimenduak irekitzeagatik lizentzia tasa.*
- *Azoka*
- *Tasa berriak:*
 - *Plan bereziak eta plan partzialak izapidetzea – 3.240,00 €*
 - *Birpartzelazioak, kontzertazio hitzarmenak, kontzertazio proiektuak, kontzertazio juntak eratu eta beraien estatutuak eta oinarriak eta hiri-lurzorua mugatzeko proiektuak izapidetzea – 3.240,00 €*
 - *Xebetasun-azterketak eta Urbanizazio-proiektuak, PAU izapidetzea – 3.240 €*
- *Tasak indargabetzea:*
 - *Txosten teknikoa bi ibilgailu edo gehiagok izandako trafiko istripuak*
 - *Txosten teknikoa pertsona zaurituak eragin dituzten trafiko istripuak*
 - *Txosten teknikoa hiri altzarietan kalteak eragin dituzten trafiko istripuak*
- *Kiroldegiko zerbitzu-tasetan hobari aldaketa, errenta-mailaren araberako hobariak.*
- *Prezio publikoak*
 - *%2ko igoera orokorra*
 - *%100eko hobaria Udala parte den erakundearen erabilerean.*

Gauzak horrela, igoera orokorretik at, ondorengo aipamenak egitea komeni da:

I. KAPITULUA: ZUZENENKO ZERGAK

1. ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGA

2025 ekitaldiko behin betiko aurrekontua 4.500.000 euro izan dira, eta onartu diren eskubideak (urriaren 1eko dataz), 4.291.0536,28.

Hirilurren karga tasa %2 handitzen den arren, hirigintza sailarekin aipatu ostean, ez da etxebizitza berririk aurreikusten. Edonola ere, balio katastrala %2 igoeko direla aurreikusi daiteke, asmoa hori dela jakinarazi baitute GFAtik.

Hortaz, 2025eko errolda ikusita, 4.600.000 euroko aurreikuspena egitea proposatzen da, kontuan izanik errolda arrunta 4.550.000 milioi inguruan egongo dela, eta etxebizitza butsen errekaruari dagon dirubilketa 50.000 euro ingurukoa izan daitekeela. Hala ere, kontuan izan behar da bildutako garbia 100.000 euro gutxiago dela, onartutakoa baino.

2. HIRILURREN BALIO GEHIKUNTZAREN GAINEKO ZERGA (Plusbalioa)

Estimazioak egitea zaila bada ere, kontuan hartu beharrekoa da azken hiru urteetan ondorengoak izan direla emaitzak aurrekontu fase bakoitzean:

	<i>Behin betiko</i>	<i>Eskubide</i>	<i>Bildutako garbia</i>	<i>Itzulketak (RI/)</i>
--	---------------------	-----------------	-------------------------	-------------------------

Kodea	J25/05908	Udala	Arrasate/Mondragón	
CUDO	000.0055.AAA1DH7Z.V.zbr3			
URL	https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA1DH7ZV.zbr3			
Dokumentu hau elektronikoki sinatu da. Honen balioa egiaztatzeko, sartu zaitetz webgunean edo irakurri ezazu QR irudia				



Esp. kodea: 2025DPRE0001

Gaia: 2026ko Udal aurrekontua

	<i>aurrekontua</i>	<i>onartuak (R)</i>	<i>(I)</i>	
2022	200.000,00	191.025,64	140.279,05	3.976,96
2023	250.000,00	399.071,79	327.945,03	14.050,75
2024	400.000,00	544.314,47	455.164,15	20.371,44
2025 (urriak 1)	520.000,00	262.982,13	206.119,96	13.798,68

Kontuan izan beharrekoak dira 2023 eta 2024 ekitaldietan amaitutako eta saldutako etxebizitzak, besteak beste: Araba etorbidea, Txeta Kalea, Udalpe eta Erguiñarro. Horrek plusbalioaren errolda handitu zuen aurreko ekitaldietan, eta, zentzu berean, 2025eko aurrekontu estimazioan eragin zuen. Hala ere, Hirigintza sailarekin aipatuta, ez da bestelako etxebizitza berririk eraikitzeke proiekturik martxan jarri. Soilik Legarre kaleko proiektua izango litzateke aurreikuspenen parte, baina, momentuz, nabiz eta 2022an PAUa egin zen eta kontzertazioa sinatuta dagoen, lur kutsatuetan dago, eta Eusko Jaurlaritzaren oniritzia jaso arte, ez da birpartzelazioa gauzatuko. Hori dela eta, Hirigintza sailak bai uste du 2026an egikaritzeko dela birpartzelazioa, baina zaila izango da etxebizitzaren eraikuntzarekin amaitzea, eta, hortaz, salmentak egitea.

Igoera %2koa izango dela kontuan hartuta, baina ikusita onartutako eskubideen eta benetan bildutakoaren zenbatekoen arteko aldea, zein Hirigintza saileko aurreikuspena, aurrekontuaren estimazioa gutxitzea proposatzen da, 300.000 eurora.

II. KAPITULUA: ZEHARKAKO ZERGAK

1. ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA OBREN GAINEN KONTZERTAZIO ZERGA

Ez da igoserarik egongo, karga tasa mugan baitago. Hirigintzarekin aipatu ostean, eraikuntza berrien inguruan, Legarreko etxebizitzaren proiektua aipatu da. Bere garaian etxebizitzak eraikitzeke proiektua aurkeztu zen udalean, baina egikaritzaren inguruko inongo informaziorik gabe.

Gainera, 2025eko aurrekontuan 1.020.000 euro aurreikusita badaude ere, urriaren 1eko dataz 940.000 euro onartu dira, eta hortik 825.000 euro bildu. Aitortutako eskubideen artean ondorengo obra esanguratsu eta puntualak daude, errolda desitxuratzen dutenak: batetik, Caja Laboraleko obrak, guztira 205.569,26 €, eta, bestetik, Fagor Arrasateko obrak, 337.081,36 €. (bi kasuetan likidazio probisionalak dira).

Gauzak horrela 1.000.000 euroko aurrekontua proposatzen da.

III. KAPITULUA: TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK

1. HIRIGINTZAKO LIZENTZIAK

Hirigintza sailetik eskatu bezala, ondorengo tasa berriak jaso dira:

- Plan bereziak eta plan partzialak izapidetzea – 3.240,00 €

Kodea	J25/05908	Udala	Arrasate/Mondragón	
CUDO	000.0055.AAA1DH7Z.V.zbr3			
URL	https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA1DH7ZV.zbr3			
Dokumentu hau elektronikoki sinatu da. Honen balioa egiaztatzeko, sartu zaitetz webgunean edo irakurri ezazu QR irudia				



Esp. kodea: 2025DPRE0001

Gaia: 2026ko Udal aurrekontua

- Birpartzelazioak, kontzertazio hitzarmenak, kontzertazio proiektuak, kontzertazio juntak eratu eta beraien estatutuak eta oinarriak eta hiri-lurzorua mugatzeko proiektuak izapidetzea – 3.240,00 €
- Xehetasun-azterketak eta Urbanizazio-proiektuak, PAU izapidetzea – 3.240 €

Kontuan hartuta, plan bereziak aurten 3 izapidetzen hasi direla, eta birpartzelazio bakarra, ez da eragin handiko tasa bat izango, nahiz eta egitate zergagarri bakoitzaren kuota-zenbategia altua izan.

Ondorengo aipamenak oinarri hartuta, aurreikuspena ez aldatzea proposatzen da (110.000,00 €):

- Urteroko eskubide onartuak 100.000 euro inguruan egon dira, baina, %80 inguru kobratzen da.
- Igoera %2
- Tasa berriak

2. BIDE PUBLIKOA HARTZEA, OKUPAZIOAK

Gebiegizkoa da okupazioaren likidazioengatik eginiko aurreikuspena (220.000). Urteko, eskubide onartuak 140.000 euro inguru izaten dira. Hortaz, 2026rako aurreikuspena jaitea proposatzen da, 150.000 eurora. Gainera, kontuan izan behar da, hobaridun obretan, okupazioari dagokion tasan ere hobaria aplikatuko zaiola.

3. UR TASA

Hasiera baten, %5eko igoera aurreikusten da, bai tarifa finkoan eta bai tarifa aldakorrean. Horrez gain, etxerako ur-hornidura kasuetan, erroldatuen arabera kontsumoak hartuko dira kontuan, eta, 10m³ ulertuko dira kontsumo arruntzat; hortik gorako kontsumoak tarifa berezi baten kobraraziko dira. Gaur egun, arrunt gisa hartzen da 50 m³-ra arteko kontsumoa, eta, hortik aurrera, gebiegizko kontsumoa dela ulertzen da. Hortaz, ondoriozta daiteke 2026ko ordenantza proposamenean oinarrituta, hurrengo ekitaldian gebiegizko kontsumoko tarifen tributatuak dutenak gebiango izango direla 2025ean baino, muga jaitsi egingo baita. Jarraian tarifen arteko aldea:

UR TASAREN TARIFA ALDAKORRAK (Etxerako)			
2025		2026	
H 50 m ³	0,61 €/m ³	H 10m ³	0,64 €/m ³
H 500 m ³	1,23 €/m ³	>10m ³	1,02 €/m ³
>500 m ³	1,23 €/m ³		

4. UDALTZAINGOAREN TXOSTENENGATIKO TASA

Uztailaren 24ko 5/2025 Legearekin, trafiko istripuengatik emititutako txostenak doakoak izan behar dira. Hortaz, tasa konkretuak indargabetu dira. Horiek dira gebien bat 528 barruko kodedun partidaren sarrerak, arma baimenekin batera, eta, hortaz, jaitiera proposatzen da.

5. ZABOR TASA

Kodea	J25/05908	Udala	Arrasate/Mondragón	
CUDO	000.0055.AAA1DH7Z.V.zbr3			
URL	https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA1DH7ZV.zbr3			
Dokumentu hau elektronikoki sinatu da. Honen balioa egiaztatzeko, sartu zaitetz webgunean edo irakurri ezazu QR irudia				



Esp. kodea: 2025DPRE0001

Gaia: 2026ko Udal aurrekontua

%3,8 igotzea adostu da. Ikusita 2025eko errolda 2.549.752,96 eurokoa izan dela, 2.646.643,57 euroko errolda aurreikusi daiteke 2026rako. Hala ere, dirubilletarekin alderatuta, aurreikuspen murriztagoa egitea proposatzen da: 2.600.000,00 euro. Hortaz, 2025eko aurreikuspenari eustea proposatzen da.

6. UDALTZAINGOAREN ISUNAK

Aurrekontuaren exekuzioak ikusita, eta "2025CHOZ0018 -IBILGAILUEN ABLADURA NEURTZEKO ZERBITZUA"-ren kontratua esleitu denez, Radar isunak ugarituko direla aurreikusi daiteke, hortaz, ez da aldaketarik proposatzen, kontuan izanda onartzen diren eskubideen eta benetako dirubilletaren arteko aldea.

V. KAPITULUA: ONDARE SARRERAK

1. GORDAILUEN INTERESAK

Kontuan izanik testuinguru ekonomikoa aldakorra dela, estimazioak egiteko zaila da. Prentsako albisteen arabera, %2an bukatuko du EURIBOR-ak urtea eta gehienez ere %2,2ra igoko da 2026an. Gaur egun Udalak ondorengo kontu erremuneratuak eta gordailuak ditu:

BANKU ERAKUNDEA	FUNTSAK (03/11/2025)	INTERES TIPOA	MUGAEGUNA
SABADELL	6.593.293,40 €	EURIBOR 3m -0,7	
KUTXABANK	3.265.538,01 €	EURIBOR 3m %60	
LABORAL	570.383,99 €	EURIBOR 3m %50	
RURAL KUTXA	161.612,75 €	STR - 1	

KUTXABANK	3.750.000,00 €	2,30%	21/12/2025
SANTANDER	2.000.000,00 €	1,98%	18/12/2025

Ikusita, egun 2025eko azaroak 3ko dataz, gordailuen interesen partidak aurreikuspenak gainditu dituela, eta, oraindik ez dela Kutxabankeko gordailuaren interesik jaso (85.000 euro inguru), Santanderreko gordailuaren hiruhileko bat falta dela (10.000 euro inguru), eta gainerako erakundeen kontu korronte erremuneratuen interesak urte bukaeran jasoko direla (gutxi gorabehera 25.000 euro) uler daiteke urte bukaeran partida 280.000 euro inguruan kokatzea.

Ikusita 2026an gastuak nabarmen igoko direla, ez dela sarreraren inguruan bestelako hazkunderik aurreikusten, eta gordailuetan izandako funtsak erabilgarri egon beharko direla gastu bolumenari aurre egiteko, likideziaz nabarmen egingo du behera, eta hori dela eta, aurtengoarekin alderatuta aurreikuspena jaistea proposatzen da.

2. UDAL ERRENTAK

Kodea	J25/05908	Udala	Arrasate/Mondragón	
CUDO	000.0055.AAA1DH7Z.V.zbr3			
URL	https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA1DH7ZV.zbr3			
Dokumentu hau elektronikoki sinatu da. Honen balioa egiaztatzeko, sartu zaitetz webgunean edo irakurri ezazu QR irudia				



Esp. kodea: 2025DPRE0001

Gaia: 2026ko Udal aurrekontua

Kontuan hartuta udal errentei dagokienean, Eibarko alokairu kontratua amaitu egin dela, 2025eko ekaina izanik azken alokairu hilabetea, eta kirol sailarekin aipatuta ez dela bestelako alokairurik aurreikusten eremu horretan. Ikusita aurrez aipatutako kontratu horrek 159.558 euro suposatzen zizkiola udalari.

Hortaz, aurrekontu partidaren murrizketa proposatzen da.

VI. KAPITULUA: INBERTSIO ERREALAK

1. HIRIGINTZA KARGAK

Azken urteotako eboluzioa ikusita, eta hirigintza sailarekin aipatu ostean, ez denez salbuespenezko bestelako dotazio jarduketarik aurreikusten, jaitziera nabaria proposatzen da.

2. APROBETXAMENDUAK

Badira hainbat urte Legarreko eremuaren birpartzelazioaren harira sarrerak aurreikusi direla. Hala ere, azken lau urteotan ez da proiektua exekutatu:

2025 1.220.095,00 €

2024 1.500.000,00 €

2023 1.500.000,00 €

2022 1.500.000,00 €

Edonola ere, aurrez aipatu bezala, proiektua 2025erako aurreikusita zegoen, baina geldirik egon da Eusko Jaurlaritzaren aldetik lurzorua kalitatearen inguruko adierazpena lortzeko arazoak egon direlako. Gauzak horrela, Hirigintza sailak 2026rako aurreikusten du birpartzelazio hori, eta sarrera finkotzat jotzen dute. Hala eta guztiz ere, proiektua udalaren esku ez dagoenez, ezin da %100ean ziurtatu.(...)”


Kontuhartzailletza honek honako behaketa osagarriak gehitzen dizkio:

4. kapitulua: Transferentzia arruntak

Kapitulu honetan, udalak beste instituzio edo erakunde publiko edo pribatu batzuetatik zuzeneko kontraprestaziorik gabe jasotzen dituen eta eragiketa arruntak finantzatzeko erabiltzen diren diru-sarrera ez-tributarioak jasotzen dira aurrekontuan.

Kapitulu honetako kontzeptu kuantitatiboki garrantzitsuenak Foru Funtsari dagokiona da. 2026. urterako aurreikusitako zenbatekoa 21.084.429,00€ da, eta bat dator GFak 2025ko urriaren 14an argitaratutako aurreikuspenarekin.

Kodea	J25/05908	Udala	Arrasate/Mondragón
CUDO	000.0055.AAA1DH7Z.V.zbr3		
URL	https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA1DH7ZV.zbr3		
Dokumentu hau elektronikoki sinatu da. Honen balioa egiaztatzeko, sartu zaitetz webgunean edo irakurri ezazu QR irudia			







Esp. kodea: 2025DPRE0001

Gaia: 2026ko Udal aurrekontua

7. kapitulua: kapital-transferentziak

Kapitulu honetan, udalak beste instituzio edo erakunde publiko edo pribatu batzuetatik zuzeneko kontraprestaziorik gabe jasotako diru-sarrera ez-tributarioak sartuko dira aurrekontuan, kapital-eragiketak finantzatzeko.

Kapital-transferentzien ondoriozko 2026eko diru-sarreraren aurreikuspena 1.227.000,00 eurokoa da.

Eusko Jaurlaritzaren 1.225.000,00 euroko dirulaguntza aurreikusi da Santa Teresa-Donetebeko obrarako.

8. kapitulua: Aktibo finantzarioak

Zorren besterentzeetatik, akzioetatik eta obligazioetatik datozen diru-sarrerak jasotzen ditu, barrukoak zein kanpokoak, epemugak epe labur eta luzean dituztenak, bai eta emandako maileguen itzulketetatik eta eratutako gordailu eta fidantzen itzulketetatik datozen diru-sarrerak ere.

Kasu honetan, Udaleko langileek hitzartutako kontsumorako maileguak itzultzearen ondoriozko diru-sarreraren aurreikuspenak jasotzen dira (90.000 €).

9. kapitulua: Pasibo finantzarioak

Kapitulu honetan, jasotako maileguetatik datorren finantzaketa jasotzen da, mailegu horien izaera eta itzultzeko epea edozein izanik ere.

2026ko aurrekontuan aurreikusten da 37.792.390,15€ko kreditu-eragiketa hitzartzea.

Gastu-aurreikuspenen ebaluazioa

Sarreraren egoera-orrian adierazten diren aurreikuspenak gainditu egin daitezke, baina gastuen egoera-orrian gehienez onar daitezkeen obligazioak finantzatuko dituzten kredituak onesten dira. Kredituak mugatzaileak dira, eta ezin dira konprometitu onartutako mailatik gorako gastuak.

1. kapitulua: Langile-gastuak

Kapitulu honi aplikatzen zaizkio langileen ordainsarien gastuak, kalte-ordainak, Gizarte Segurantzarako eta Elkarbidetzarako nahitaezko kotizazioak, eta indarrean dauden akordioak eta xedapenak betez Udalak langileentzat egindako izaera sozialeko beste gastu batzuk, hala nola prestakuntza-gastuak.

Kodea	J25/05908	Udala	Arrasate/Mondragón	
CUDO	000.0055.AAA1DH7Z.V.zbr3			
URL	https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA1DH7ZV.zbr3			
Dokumentu hau elektronikoki sinatu da. Honen balioa egiaztatzeko, sartu zaituzte webgunean edo irakurri ezazu QR irudia				



Esp. kodea: 2025DPRE0001

Gaia: 2026ko Udal aurrekontua

Apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 90.1 artikulua ezartzen duenez, toki-korporazio bakoitzari dagokio “urtero, aurrekontuaren bitartez, plantilla onartzea. Plantilla horrek funtzionarioentzat, lan-kontratuko langileentzat eta behin-behineko langileentzat gordetako lanpostu guztiak jaso beharko ditu”.

TATBren 126.3 artikulua araberan, “aurrekontua indarrean dagoen bitartean plantillak aldatu ahal izateko, aurrekontua aldatzeko ezarritako izapideak bete beharko dira”.

Bestalde, Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legearen 17. artikulua honako hau ezartzen du:

“17. artikulua

Lanpostuen zerrendak aurrekontu-aurreikuspenetara egokituko dira, halako moldez non ezingo duten barne hartu dagokion ekitaldirako aurrekontu-plantilletan aurreikusitako kredituekin bete ezin den zuzkidura duen lanposturik.”

Pertsonal sailetik helarazi dute Arrasateko Udaleko 2026eko plantilla organikoa eta lanpostuen zerrenda, 2026eko aurrekontuaren espedientean txertatzen direlarik.

2026ko aurrekontuko 1. Kapitulua zenbatekoa 15.130.272,57 € da. Udal-gastuaren %18,46 dira. Kapitulu honen zenbatekoa % 4 handitu da 2025ko hasierako kontsignazioekin alderatuta

2. kapitulua: Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak

Kapitulu honetan sartzen dira programak egiteko eta eskumenak baliatzeko beharrezkoak diren ondasun arruntak eta zerbitzuak eskuratzeko kredituak, kapitala edo ondare publikoa handitzen ez dutenak.

Kapitulu honetako diru-izendapenak udal-gastuaren % 20,21 dira. 2026 ekitaldian, 2025 ez bezala, ez dute baliabide gehien kontsumitzen duen udal-gastuaren kapitulua osatzen.

Eskura dugun kontabilitate- eta aurrekontu-informazioa kontuan hartuta, aldeztu aurretik legeztatu hartutako konpromisoak finantzatzeko dituzten partidetan ez da aurkitu, printzipioz, eskasirik.

2026ko aurrekontuko 2. Kapitulua zenbatekoa 16.553.071,00€ da. Kapitulu honen zenbatekoa % 7 handitu da 2025ko hasierako kontsignazioekin alderatuta

3. kapitulua: Finantza-gastuak

Kodea	J25/05908	Udala	Arrasate/Mondragón	
CUDO	000.0055.AAA1DH7Z.V.zbr3			
URL	https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA1DH7ZV.zbr3			
Dokumentu hau elektronikoki sinatu da. Honen balioa egiaztatzeko, sartu zaituzte webgunean edo irakurri ezazu QR irudia				



Esp. kodea: 2025DPRE0001

Gaia: 2026ko Udal aurrekontua

Aurrekontu-kapitulu honi egozten zaizkio, batez ere, Udalak formalizatutako maileguen interesei dagozkien gastuak eta gainerako finantza-gastu eta -komisioak. Udalak mailegua eskatzea aurreikusten badu ere, horri dagokion interesak, printzipioz, 2027 urtean gauzatuko lirateke.

2026ko aurrekontuko 3. Kapituluaren zenbatekoa 40.100,00€ da.

4. kapitulua: Transferentzia arruntak (emandakoak)

Kapitulu honetan, Udalak beste sektore batzuei eman beharreko kopuruak kontabilizatzeko behar diren kredituak biltzen dira, sektore publikoa osatzen dutenak edo beste edozein erakunde edo pertsona izan, eragile hartzaileen zuzeneko kontrapartidarik gabe, eta eragiketa arruntak finantzatzeko.

Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 8. artikuluan ezarritakoaren arabera:

«8. artikulua. Printzipio orokorrak.

1. *Administrazio publikoetako organoek edo dirulaguntzak ezartzea proposatzen duten beste edozein erakundek, aldezturik, dirulaguntzen plan estrategiko batean zehaztu beharko dituzte dirulaguntzen aplikazioarekin lotu nahi diren helburu eta ondorioak, horiek lortzeko epea, aurreikus daitezkeen kostuak eta finantzaketa-iturriak, betiere aurrekontu-egonkortasunaren helburuak betetzearen mende.»*

Udalak 2024-2027 Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onartu zuen 2024ko otsailaren 6an egindako osoko bilkuran (GAO, 36. zk., otsailaren 20koa), eta plan horren aldaketa bat onartu zuen 2024ko urriaren 1ean. Bigarren aldaketa 2024/12/19eko Udaleko Osoko Bilkurak onartu zuen eta hirugarrengoa 2025/03/04eko Udaleko Osoko Bilkurak. Hala ere, beti ez da errealitatera egokitzen, eta, beraz, Plan Estrategikoan agertzen diren zenbatekoak ez badatoz bat ematen den dirulaguntzaren zenbatekoarekin, Plan hori aldatu beharko litzateke.

Gainera, zuzenean ematen diren dirulaguntza batzuk izendun bezala jaso beharko litzateke, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 22.2 a) artikuluari jarraikiz. Bestela, salbuespenezko izaera justifikatu beharko litzateke, aipatutako legearen 22.2 c) artikuluen arabera.

Horregatik, dirulaguntzen plan estrategikoaren laugarren aldaketa prestatzen ari da dirulaguntza izendunak bihurtzeko eta zenbatekoak egokitzeko 2026ko ekitaldira.

Azkenik, kapitulu honetan, zerbitzu mankomunatuak Mankomunitateari egin beharreko transferentzien aurreikuspena ere jasotzen da, besteak beste. %14ko igoera aurreikusi da.

2026ko aurrekontuko 4. Kapituluaren zenbatekoa 6.317.838,53€ da. Kapitulu honetako diru-izendapenak udal-gastuaren % 7,7 dira.

Kodea	J25/05908	Udala	Arrasate/Mondragón	
CUDO	000.0055.AAA1DH7Z.V.zbr3			
URL	https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA1DH7ZV.zbr3			
Dokumentu hau elektronikoki sinatu da. Honen balioa egiaztatzeko, sartu zaituzte webgunean edo irakurri ezazu QR irudia				



Esp. kodea: 2025DPRE0001

Gaia: 2026ko Udal aurrekontua

5. kapitulua: Kreditu globala eta bestelako ezustekoak

Kapitulu honetan kreditu orokorrerako zuzkidura jasotzen da, bai eta ekitaldian zehar ager daitezkeen eta hasieran onartutako aurrekontuan aurreikusi ez diren premiei erantzuteko zuzkidura ere. 2026. urterako 100.000 € jarri dira.

6. kapitulua: Inbertsio errealak

2026eko aurrekontuan 41.103.525,05 euroko inbertsioak egitea aurreikusten da. Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 114. artikulua arabera, Lurzoruaren Udal Ondareari dagozkion inbertsioak kuantifikatu behar dira, gainerakoetatik bereiziz.

Aurrekontuaren Inbertsioen Eranskinean, hirigintza-arloak sinatutako txostena jasotzen da. Horrela, aurrekontuan sartutako inbertsio guztiak zerrendatzeaz eta baloratzeaz gain, Arrasateko Udalak egindako inbertsioek Lurzoru Ondare Publikoan duen eragina adierazten da.

Honako partida hauek nabarmentzen dira, zenbatekoengatik:

PARTIDA	IZENA	ZENBATEKOA
1 0500.601.153.20.01	SAN JUAN TALDEA BERURBANIZAZIO LANAK	1.790.000,00
1 0500.622.342.01.01	ITURRIPE BERRIA	31.200.000,00
1 0500.622.151.00.00	UDAL ONDARERAKO EROSKETAK	3.050.000,00
1 0500.601.134.02.00	BIDEGORRIAK	300.000,00
1 0500.600.920.00.01	HAINBAT DESJABETZA	555.000,00
1 0800.601.150.00.01	SANTA TERESAKO OBRA	433.458,05
1 0805.623.161.00.01	UR HORNIDURA ZERBITZUEN MODERNIZAZIOA	683.000,00
1 0800.622.337.21.00	TXIKITXOKO HANDITZEA	146.000,00

Kodea	J25/05908	Udala	Arrasate/Mondragón	
CUDO	000.0055.AAA1DH7Z.V.zbr3			
URL	https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA1DH7ZV.zbr3			
Dokumentu hau elektronikoki sinatu da. Honen balioa egiaztatzeko, sartu zaitetz webgunean edo irakurri ezazu QR irudia				



Esp. kodea: 2025DPRE0001

Gaia: 2026ko Udal aurrekontua

2026ko aurrekontuko 6. Kapitulua zenbatekoa 41.103.525,05€ da. Kapitulua honetako diru-izendapenak udal-gastuaren % 50,15 dira.

Kapitulua honen zenbatekoa % 78 handitu da 2025ko hasierako kontsignazioekin alderatuta.

7. kapitulua: Kapital transferentziak

Toki-erakundeak beste sektore batzuei eman beharreko kopuruak kontabilizatzeko behar diren kredituak dira, sektore horiek sektore publikokoak izan edo beste edozein erakunde edo pertsona izan, eragile hartzaileen zuzeneko kontrapartidarik gabe, eta kapital-eragiketak finantzatzeko.

Kapitulua honetan, aurreko urtean bezala, partidarik nabarmenena Santa Teresa-Donetztebeko bizilagunentzako bideratutakoa da: 2.040.494,39€.

2026ko aurrekontuko 7. Kapitulua zenbatekoa 2.515.893,61€ da. Kapitulua honetako diru-izendapenak udal-gastuaren % 3 dira.

Kapitulua honen zenbatekoa % 20 gutxitu da 2025ko hasierako kontsignazioekin alderatuta.

8. kapitulua: Aktibo finantzarioak

Aktiboak eskuratzeko, aurrerakinak eta maileguak emateko eta gordailuak eta fidantzak eratzeko egiten den gastua jasotzen du kapitulu honek.

Korporazioko langileei kontsumorako maileguak emateko aukera aurreikusten da, 90.000 € gehienez ere. Bestalde, finantzak eratzeko 1.800€ aurreikusten dira badaezpada.

2026ko aurrekontuko 8. Kapitulua zenbatekoa 109.800,00€ da.

9. kapitulua: Pasibo finantzarioak

Kapitulua honetan, zorrak amortizatu eta kitatzeagatikoko gastuak jasotzen dira, edozein dela ere horien modalitatea.

Arrasateko Udalak, gaur egun, bi mailegu ditu: IDAE 1 eta IDAE 2 bezala identifikatzen direnak. Berauek, Debagoienako Mankomunitatearen bidez eskatutakoak izan dira, %0 interesarekin. Honakoa taulan ikusten den gisa:

Kodea	J25/05908	Udala	Arrasate/Mondragón	
CUDO	000.0055.AAA1DH7Z.V.zbr3			
URL	https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA1DH7ZV.zbr3			
Dokumentu hau elektronikoki sinatu da. Honen balioa egiaztatzeko, sartu zaitetz webgunean edo irakurri ezazu QR irudia				



Esp. kodea: 2025DPRE0001

Gaia: 2026ko Udal aurrekontua

MAILEGUA	ZENBATEKOA	ESLEITU ZEN DATA	AMAIERA DATA	INTERESA	SALDOA 2024/12/31	2025	2026
Debagoiena Mankomunitatea 1 (IDAE 1)	445.485,52	30/09/2018	30/09/2027	0,00%	117.439,70	51.797,40	51.797,40
Debagoiena Mankomunitatea 2 (IDAE 2)	370.007,73	31/01/2021	31/03/2029	0,00%	189.524,85	45.120,72	45.120,72
Debagoiena Mankomunitatea 3 (IDAE 3)	953.317,11	Prebisioa	01/01/2036	0,00%			
				Guztira	306.964,55	96.918,12	96.918,12

Beraz, Zor guztien urteko kuota teorikoa kalkulatzeko, orain artekoa eta berriak hartu behar dira kontuan. 2026ko ekitaldian IDAE 3 mailegua eskatuko da, orain artean egin gisa, Debagoienako Mankomunitatearen bidez, une honetan, martxan dago esleipena. Berau 953.317,11 eurokoa izango da, eta bestalde, 2027 ekitaldian aurreikusten da 37.794.570,27€ko mailegu baten kontratazioa, baina 2027 urtean hasiko litzateke amortizatzen; beraz, kapitulu honen aurrekontu-esleipena 0,00 € da.

2026ko aurrekontuko 9. Kapituluaren zenbatekoa 96.918,12€ da.

Aurrezki garbia

Aurrezki garbia da toki-erakunde batek bere eragiketa arrunten eta zorpetzearen ondoriozko kargaren ondorioz duen oreka edo, hala badagokio, desoreka ezagutzeko oinarritzko magnitudea; beraz, finantza-osasuneko aurrekontu-adierazlea da, eta hori ez betetzeak zorpetzeko ezintasuna dakar, eta udalak behartzen ditu bere finantza-saneamendua planifikatzera.

Toki-erakundearen finantza-tutoretzako araubidea arautzen duen foru-araudiak ezartzen duenez, aurrezki garbiaren kalkuluan zenbatu beharreko diru-sarrerak arruntak zehazteko, diru-sarrera arruntzat hartzen ez diren ezohiko diru-sarrerak kendu behar dira.

Aurreko erregulazioarekin bat etorriz, aurrekontuan jasotako gastu guztiak exekutatu balira eta proiektatutako diru-sarrera guztiak likidatu balira, honako hau izango litzateke Udalak 2026/12/31n lortuko lukeen aurrezki garbia:

Udalaren 2026ko aurrekontuaren % 100 gauzatzearen ondoriozko aurrezki garbiaren kalkulua:

Diru-sarrerak: 1. kapitulua. Zuzeneko zergak	8.039.000,00 €
Diru-sarrerak: 2. kapitulua. Zeharkako zergak:	1.000.000,00 €
Diru-sarrerak: 3. kapitulua. Tasak eta bestelako diru-sarrerak	8.964.700,00 €
Diru-sarrerak: 4. kapitulua. Jasotako transferentzia eta dirulaguntza arruntak	22.913.819,00 €

Kodea	J25/05908	Udala	Arrasate/Mondragón	
CUDO	000.0055.AAA1DH7Z.V.zbr3			
URL	https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA1DH7ZV.zbr3			
Dokumentu hau elektronikoki sinatu da. Honen balioa egiaztatzeko, sartu zaitzez webgunean edo irakurri ezazu QR irudia				



Esp. kodea: 2025DPRE0001

Gaia: 2026ko Udal aurrekontua

Diru-sarrerak: 5. kapitulua. Ondare-sarrerak:	224.500,00 €
A. Diru-sarrera arruntak	41.142.019,00 €
Doikuntzak:	0,00 €
B. Aparteko diru-sarrera arruntak	0,00 €
C. Diru-sarrera arrunt arruntak (A-B)	41.142.019,00 €
Gastuak: 1. kapitulua. Langile-gastuak	15.130.272,57 €
Gastuak: 2. kapitulua. Ondasunak eta zerbitzuak erostea	16.553.071,00 €
Gastuak: 4. kapitulua. Emandako transferentzia eta dirulaguntza arruntak	6.317.838,53 €
D. Gastu arrunta	38.101.182,10 €
E. Aurrezki gordina (C-D)	3.040.836,90 €
Gastuak: 3. kapitulua. Maileguen interesak:	0 €
Gastuak: 9. kapitulua. Zorraren amortizazioa*	96.918,12 €
F. Udal-zorra itzultzeko gastuak:	96.918,12 €
Aurrezki garbia (E-F)	2.943.918,78 €

Aurreko kalkuluaren arabera, diru-sarrera arruntak gastu arruntak baino 3.040.836,90 € handiagoak dira (aurrezki gordina).

Zorpetzerik eta/edo finantza-kargari dagokionez, finantza gastuak deskontatuko dira aurrezki garbia kalkulatzeko. Beraz, Aurrezki garbi doitua = (1-5 kap. sarreren eskubide garbiak) - (1, 2 eta 4 kap. gastuak) - (Zor guztien urteko kuota teorikoa: orain artekoa eta berria* kontuan izanik lehen urtea karentzia urtea izan ohi dela) = 2.943.918,78 € dira eta kopuru hau gastu ez-arrunta finantzatzeko erabiltzen da.

Aurrezki garbi doitua 2.943.918,78€-koa izango litzateke, kontuan izanik, kalkulu hauetan ez dugula kreditu globala aintzat izan eta beraz, doitu beharrik ez dagoela.

AURREKONTUA

GASTUAK

Kodea	J25/05908	Udala	Arrasate/Mondragón	
CUDO	000.0055.AAA1DH7Z.V.zbr3			
URL	https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA1DH7ZV.zbr3			
Dokumentu hau elektronikoki sinatu da. Honen balioa egiaztatzeko, sartu zaitetz webgunean edo irakurri ezazu QR irudia				



Esp. kodea: 2025DPRE0001

Gaia: 2026ko Udal aurrekontua

Kapituluak	Deskribapena	ZENBATEKOA	%
1	Pertsonal gastuak	15.130.272,57	18,46%
2	Ondasunak eta zerbitzuak	16.553.071,00	20,19%
3	Interesak	40.100,00	0,05%
4	Transferentzia arruntak	6.317.838,53	7,71%
5	Kreditu globala	100.000,00	0,12%
6	Inbertsioak	41.103.525,05	50,15%
7	Kapital transferentziak	2.515.893,61	3,07%
8	Finantza aktiboen aldaketa	109.800,00	0,13%
9	Finantza pasiboen aldaketa	96.918,12	0,12%
	GUZTIRA	81.967.418,88	100

SARRERAK


Kapituluak	Deskribapena	ZENBATEKOA	%
1	Zuzeneko zergak	8.039.000,00	9,81%
2	Zeharkako zergak	1.000.000,00	1,22%
3	Tasak eta bestelako sarrerak	8.964.700,00	10,94%
4	Transferentzia arruntak	22.913.819,00	27,95%
5	Ondare sarrerak	224.500,00	0,27%
6	Inbertsio errealeen inorenganatzea	1.271.195,29	1,55%
7	Kapital transferentziak	1.227.000,00	1,50%
8	Finantz aktiboen aldaketa	90.000,00	0,11%
9	Finantz pasiboen aldaketa	38.237.204,59	46,65%
	GUZTIRA	81.967.418,88	100

6. AURREKONTUAREN MAILAKETA

2025erako aurrekontua Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauan ezarritako Finantza Oreka Printzipioaren arabera berdinduta aurkezten da, onar dadin.

Aurrekontua berdintzeak esan nahi du diru-sarreraren egoera-orrian agertzen diren hasierako kontsignazio guztiak nahikoak direla gastuen egoera-orratik eratorritako betebeharrei aurre egiteko. Parekatze hori gertatzeko (diru-sarreraren hasierako aurrekontua 81.967.418,88€-koa da, gastuen aurrekontua bezala), mailegu bat (38.237.204,59€) eskatu beharko da inbertsioak finantzatu ahal izateko.

Kodea	J25/05908	Udala	Arrasate/Mondragón
CUDO	000.0055.AAA1DH7Z.V.zbr3		
URL	https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA1DH7ZV.zbr3		
Dokumentu hau elektronikoki sinatu da. Honen balioa egiaztatzeko, sartu zaituzte webgunean edo irakurri ezazu QR irudia			







Esp. kodea: 2025DPRE0001

Gaia: 2026ko Udal aurrekontua

Aurrekoa gorabehera, eta 2025ko baliabideen eta gastuen arteko aurrekontu-berdinketaren printzipioari eutsiz, 2026eko Aurrekontu Orokorrak 21/2003 Foru Arauaren 14.6 artikuluan ezarritakoa betetzen du.

7. LURZORUARI ETA HIRIGINTZARI BURUZKO EKAINAREN 30EKO 2/2006 LEGEA BETETZEA

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeak 114.1 artikuluan ezartzen duenez, aurrekontuetan kopuru bat kontsignatu beharko da udalaren lurzoru-ondareari (ULO) atxikitako ondasunetarako, eta kopuru hori ez da izango 1. eta 2. kapituluetan kontsignatutakoaren % 10 baino txikiagoa.

Aipatu lege horren 115. artikulua funts horien balizko xedea zehazten du.

Hirigintza, Ingurumen eta Mugikortasun Saileko buruak ondorengo txostena egin du:

“HELBURUA


2/2006 Legeak, ekainaren 30ekoak, lurzoruari eta hirigintzari buruzkoak, zera jasotzen du bere 114.1 artikuluan: babes publikoko araubideren bati atxikitako etxebizitzak gordetzeko betebeharra duten udalek (horixe da Arrasateko kasua), bere urteroko aurrekontuetan Udal Lurzoru-Ondarerako (ULO) izendatutako diru-kopuruak ezin izango duela, inola ere, diru-sarreran I. eta II. Kapituluaren batuketa osoaren % 10etik beherakoa izan. Halaber, adierazten du, aurrekontuaren azalpen-memorian zehaztu egin beharko dela diru-kopuru horren gutxienezko zein ehuneko aurreikusten den ULOaren xedeetako bakoitzerako.

Aurreko legearen garapen gisa, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailburuak emandako 105/2008 Dekretua dago, ekainaren 3koa, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea garatzen duten premiazko neurriei buruzkoa. Dekretu horren 38. artikulua ezartzen ditu ULOko baliabide eta ondasunei eman beharreko lehenetsuezko erabilerak. 39.ak, aldi, eman dakiekeen bestelako erabilera batzuk zerrendatzen ditu.

Lehenetsuezkoen artean daude:

- ULOko ondasun eta baliabideak, zuzkidura publikoetara zuzenduta ez daudenak, babes publikoko erregimenen bati lotutako etxebizitzak eraikitzea zuzentzea. Alegia:
 - Babes publikoko etxebizitzetarako lurzorua eskuratzea.
 - Babes publikoko etxebizitzetara bideratutako lurzorua urbanizatzea.
 - Jadantik urbanizatutako lurzorua eskuratzea, babes publikoko etxebizitzetarako direnean.
 - Babes publikoko etxebizitzak eraikitzea.
 - Jadantik eraikita dauden babes publikoko etxebizitzak erostera, alokairuan jartzeko.

Kodea	J25/05908	Udala	Arrasate/Mondragón
CUDO	000.0055.AAA1DH7Z.V.zbr3		
URL	https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA1DH7ZV.zbr3		
Dokumentu hau elektronikoki sinatu da. Honen balioa egiaztatzeko, sartu zaitetz webgunean edo irakurri ezazu QR irudia			







Esp. kodea: 2025DPRE0001

Gaia: 2026ko Udal aurrekontua

- Egikaritze unitateetan, osotasunean edo zati baten bada ere, babes publikoko erregimenen bati lotutako etxebizitzak aurreikusten badira, eta egikaritze-erregimen publikoko sistemaren baten pean garatzekoa bada, horien urbanizazio lanak ordaintzera zuzentzea.

Bestelako erabilera posibleen artean daude:


- ULOko ondasun eta baliabideak, zuzkidura publikoetara zuzenduta ez daudenak, honako helburu hauetara zuzentzea:
 - Erreserba-eremu gisa izendatutako eremuetan, lehtasunez erosteko eta atzera eskuratzeko eskubideak gauzatzera.
 - Azpiegitura zein zuzkidura publikoak eta zonalde degradatuetako sistema orokorrak birgaitzeko, berritzeko edo hobetzeko lanak ordaintzera.
 - Sustapen edo interes publikoko izaera onartu zaien jarduera ekonomikoetara bideratutako zorua erostera edo publikoki sustatzera.
 - Ondare historiko eta kulturala birgaitzeko, berreskuratze eta hobetzeko obrak egitera.
 - Udal-titulartasuneko ekipamendu kolektiboak eraikitzea, birgaitzea edo hobetzea (zerbitzu eta jabari publikoko ekipamenduak soilik hartuta).

Hori guztia horrela, txosten honen helburua da Arrasateko Udalaren 2026ko aurrekontuan jasotako azterketa egitea 2/2006 Legearen 114.1 artikuluan jasotakoa betetzen dela ziurtatzeko.

GASTUAK UDAL LURZORU-ONDAREAREN XEDE BAKOITZERAKO (2026)

Jarraian jaso dira 2026ko aurrekontuan jasotako gastuak, ULOaren xedeetako bakoitzarekiko, ehunekoak ere kalkulatuta.

Kodea	J25/05908	Udala	Arrasate/Mondragón
CUDO	000.0055.AAA1DH7Z.V.zbr3		
URL	https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA1DH7ZV.zbr3		
Dokumentu hau elektronikoki sinatu da. Honen balioa egiaztatzeko, sartu zaitetz webgunean edo irakurri ezazu QR irudia			







Esp. kodea: 2025DPRE0001

Gaia: 2026ko Udal aurrekontua

PARTIDA	DESKRIBAPENA	AURREKONTUA	%
XEDEA: BABES PUBLIKOKO ETXEBIZITZETARAKO LURZORUA ESKURATZEA		0,00 €	0,00%
-	Ez da gasturik jaso aurrekontuan	0,00 €	0,00%
XEDEA: BABES PUBLIKOKO ETXEBIZITZETARA BIDERATUTAKO LURZORUAK URBANIZATZEA		0,00 €	0,00%
-	Ez da gasturik jaso aurrekontuan	0,00 €	0,00%
XEDEA: URBANIZATUTAKO LURZORUAK ESKURATZEA BABES PUBLIKOKO ETXEBIZITZETARAKO		0,00 €	0,00%
-	Ez da gasturik jaso aurrekontuan	0,00 €	0,00%
XEDEA: BABES PUBLIKOKO ETXEBIZITZAK ERAIKITZEA		0,00 €	0,00%
-	Ez da gasturik jaso aurrekontuan	0,00 €	0,00%
XEDEA: JADANIK ERAIKITA DAUDEN BABES PUBLIKOKO ETXEBIZITZAK EROSTEA, ALOKAIKUAN JARTZEKO		0,00 €	0,00%
-	Ez da gasturik jaso aurrekontuan	0,00 €	0,00%
XEDEA: EGIKARITZE-ERREGIMEN PUBLIKOKO URBANIZAZIO-LANAK ORDAINITZEA, BABES PUBLIKOKO ETXEBIZITZAK AURREIKUSTEN DIRENETAN		0,00 €	0,00%
-	Ez da gasturik jaso aurrekontuan	0,00 €	0,00%
XEDEA: ERRESERBA-EREMUETAN, LEHENTASUNEZ EROSTEO ETA ATZERA ESKURATZEKO ESKUBIDERA KO		0,00 €	0,00%
-	Ez da gasturik jaso aurrekontuan	0,00 €	0,00%
XEDEA: AZPIEGITURAK, ZUZKIDURA PUBLIKOAK ETA ZONALDE DEGRADATUETAKO SISTEMA OROKORRAK BIRGAITZEA		4.039.164,05 €	11,21%
1 0104.626.132.00.00	1. GUNEKO KALEETAN IBILGAILUEN SARRERA-IRTEERAK KONTROLATZEKO MATRIKULA IRAKURGAILU SISTEMA BATEN EZARKETA.	0,00 €	0,00%
1 0202.622.332.10.00	SANTA MARINA AUZOKO LIBURUTEGIA HANDITZEA	1,00 €	0,00%
1 0500.623.133.00.02	BIZIKLETENTZAKO APARKALEKUAK	80.000,00 €	0,22%
1 0500.601.134.02.00	BIDEGORRIAK	300.000,00 €	0,83%
1 0500.601.153.20.01	SAN JUAN TALDEA BERURBANIZAZIO LANAK	1.790.000,00 €	4,97%
1 0500.601.153.22.05	HIRIGINTZA TAKTIKOA	150.000,00 €	0,42%
1 0515.601.172.40.00	GUNE DEGRADATUAK BERESKURATZEA.IBILBIDEA	18.000,00 €	0,05%
1 0808.601.133.00.00	BIDE PUBLIKOETAKO SEINALIZAZIOA	40.000,00 €	0,11%
1 0800.601.150.00.01	SANTA TERESA OBRA	433.458,05	1,20%
1 0800.601.153.00.01	ITURBIDE AURREALDEA BERRITZU	139.705,00 €	0,39%
1 0800.601.153.00.00	BIDE PUBLIKOEN URBANIZAZIOA	25.000,00 €	0,07%
1 0800.601.153.20.00	ASFALTATUAK	200.000,00 €	0,55%
1 0800.623.153.30.00	HIRI ALTZARIAK	35.000,00 €	0,10%
1 0800.623.153.31.00	BARANDATUAK	10.000,00 €	0,03%
1 0805.623.161.00.01	UR HORNIDURA ZERBITZUEN MODERNIZAZIOA	683.000,00 €	1,90%
1 0800.623.165.00.02	ARGITERIA PUBLIKORAKO INBERTSIOAK	80.000,00 €	0,22%
1 0800.623.172.00.02	SUTE SISTEMA BERRIA BASERRI AUZOETAN	15.000,00 €	0,04%
1 0812.601.454.00.01	BASERRI BIDEAK	40.000,00 €	0,11%
XEDEA: INTERES PUBLIKOKO JARDUERA EKONOMIKOETARAKO ZORUA EROSTEA EDO SUSTATZEA		0,00 €	0,00%
-	Ez da gasturik jaso aurrekontuan	0,00 €	0,00%
XEDEA: ONDARE HISTORIKO ETA KULTURALA BIRGAITZEKO, BERRESKURATZEKO ETA HOBETZEKO OBRAK EGITEA		56.000,00 €	0,16%
1 0500.602.336.00.01	ONDARE HISTORIKOAK BERRESKURATZEA	30.000,00 €	0,08%
1 0500.627.336.00.01	LEZETXIKIKO BABES EKIMENAK	20.000,00 €	0,06%
1 0500.622.336.00.02	GOMEZTIO BASERRIKO EGITURA BERRERAIKI	6.000,00 €	0,02%
XEDEA: EKIPAMENDU KOLEKTIBOAK ERAIKITZEA, BIRGAITZEA EDO HOBETZEA (ZERBITZU ETA JABARI PUBLIKOKOAK)		31.946.003,00 €	88,64%
1 0104.622.132.00.03	UDALTAINGOAREN ERAIKINEAN EGIN BEHARREKO BIRMOLDAKETA	215.000,00 €	0,60%
1 0400.622.230.01.01	GIZARTE ZERBITZUETAKO BULEGOEN HAUNDITZE PROIEKTUA	1,00 €	0,00%
1 0400.622.230.02.01	HONDARRIBIA KALEA 1-3 ERAIKINA BIRGAITZEA	0,00 €	0,00%
1 0502.601.134.00.01	GOROSTIZA IGOGAILUA	1,00 €	0,00%
1 0500.622.334.00.01	AMAIA ANTZOKIA BERRITZEKO LANAK	0,00 €	0,00%
1 0500.622.342.01.01	ITURRIPE BERRIA	31.200.000,00 €	86,57%
1 0802.601.171.00.00	HAUR PARKEAK	25.000,00 €	0,07%
1 0800.601.172.00.00	KARGA ELEKTRIKOKO PUNTUAK	25.000,00 €	0,07%
1 0800.622.337.21.00	TXIKITXOKOA HANDITZEA	146.000,00 €	0,41%
1 0800.622.920.10.00	ZENTRO PUBLIKOETAKO ARGITERIA HOBETZEA	20.000,00 €	0,06%
1 0900.622.323.00.00	HEZKUNTZAKO INBERTSIOAK-Bedoñabe patriko lanak	1,00 €	0,00%
1 1200.622.340.00.00	KIROL SAILEKO INBERTSIOAK	285.000,00 €	0,79%
1 1330.643.231.51.01	EMAKUME TXOKOA LEKU ALDAKETA PROIEKTUA	30.000,00 €	0,08%
GUZTIRA		36.041.167,05 €	100,00%

Ikus daitekeenez, Udal Lurzorru-Ondarearen biru xedetan dauka eragina 2026rako aurrekontuak, guztira 36.041.167,05€ bideratzen direlarik gastu horietara guztietara. Eragindako xedekako laburpen-taula, honakoa:

XEDEA	AURREKONTUA	%
Azpiegiturak, zuzkidura publikoak eta zonalde degradatuetako sistema orokorrak birgaitzea	4.039.164,05 €	% 11,21
Ondare historiko eta kulturala birgaitzeko, berreskuratzeke eta hobetzeko obrak egitea	56.000,00 €	% 0,16

Kodea	J25/05908	Udala	Arrasate/Mondragón
CUDO	000.0055.AAA1DH7Z.V.zbr3		
URL	https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA1DH7ZV.zbr3		
Dokumentu hau elektronikoki sinatu da. Honen balioa egiaztatzeko, sartu zaitetz webgunean edo irakurri ezazu QR irudia			







Esp. kodea: 2025DPRE0001

Gaia: 2026ko Udal aurrekontua

Ekipamendu kolektiboak eraikitzea, birgaitzea edo hobetzea (zerbitzu eta jabari publikokoak)	31.946.003,00 €	% 88,64
GUZTIRA	36.041.167,05 €	% 100

Ondorio nabarmenena da, Iturripeko kiroldegi berria eraikitzeke lanen eraginagatik, ULOaren xede horretara bideratutako kopuruak direla handienak; ekipamendu kolektibo berri baten eraikuntzarako direlako.

AURREIKUSITAKO SARRERAK 1. ETA 2. KAPITULUETAN

Aurrekontuko lehen bi kapituluetan jasotako sarrerak honakoak dira:

Kapituluak	Deskribapena	Kopurua
1	Zuzeneko zergak	8.039.000,00 €
2	Zeharkako zergak	1.000.000,00 €
GUZTIRA		9.039.000,00 €
KOPURU HORREN % 10a		903.900,00 €

ONDORIOA

Aipatutako guztiaren ondorioa argia da: ULOaren xedeetara askoz ere baliabide gehiago bideratuko dira 2026ko aurrekontuan 2/2006 Legearen 114.1 artikuluan jasotakoak baino. Horren arabera, 903.900,00€ bideratu beharko lirake aurrekontuan, gutxienik, ULOaren xedeetara. Aldiz, aurrekontuan 36.041.167,05€ bideratzen dira guztira (alegia, eskatutakoa baino ia 40 aldiz gehiago). **Legean jasotako baldintza, beraz, betetzen da 2026ko aurrekontuan.(...)**

Beraz, EAEko 2/2006 Legean ezarritakoa betetzen da.

8. AURREKONTU EGONKORTASUNA, GASTU ARAUA ETA ZOR PUBLIKO HELBURUA

- Aurrekontu egonkortasuna

Aurrekontuak **EZ DU BETETZEN** zero defizitaren helburua SEC terminoetan. Ondorio horietarako, kalkulu hori egin da 1etik 7ra bitarteko kapituluetakotako diru-sarreraren aurreikuspenen eta 1etik 7ra bitarteko kapituluetakotako gastuen aurreikuspenen arteko alde gisa, guztia termino finkatuetan

AURREKONTU EGONKORTASUNA	
Sarrerak 1-7	43.640.214,29

Kodea	J25/05908	Udala	Arrasate/Mondragón	
CUDO	000.0055.AAA1DH7Z.V.zbr3			
URL	https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA1DH7ZV.zbr3			
Dokumentu hau elektronikoki sinatu da. Honen balioa egiaztatzeko, sartu zaitetz webgunean edo irakurri ezazu QR irudia.				



Esp. kodea: 2025DPRE0001

Gaia: 2026ko Udal aurrekontua

Gastuak 1-7	81.760.700,76
	-38.120.486,47

Ezarritako helburua betetzen ez duten toki-erakundeek ekonomia- eta finantza-plan bat egin beharko dute egoera zuzenduko dela bermatzeko, 2/2012 Lege Organikoaren 21. artikuluari jarraikiz. Hala ere, plan hori egiteko betebeharra zehazteko, aurrekontuaren likidazioan egiaztatuko da helburua bete dela. Ez-betetzea diruzaintzako gerakina erabiltzearen ondorio denean, ez da beharrezkoa izango plan hori onartzea; aitzitik, Gipuzkoako toki-erakundeen aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-jasangarritasunaren arloan finantza-tutoretzaren eskumena garatzen duen otsailaren 8ko 1/2013 Foru Arauaren 5. artikularen 3. apartatuan aurreikusitako osoko bilkurari jakinaraztearekin ordeztuko da plana.

- **Gastu araua**

2025 eta 2026 artean gastu konputagarriaren aldakuntza % 52,05koa da (2025an aurrelikidazioan egindako prebisioa erreferentziatzat hartuta).

Ondorioz, aurreikusitako proiektuak gauzatzen badira, aurrekontu honek **EZ DU BETETZEN** araua. Hala ere, betetze hori aurrekontuaren likidazioan egiaztatu behar da, 1/2013 Foru Arauak ezartzen duen bezala. Kasu horretan, Udalak Ekonomia eta Finantza Plan bat onartu eta aplikatu beharko luke helburu hori betetzeko.

	2026	2025
Gastu ez finantzarioak (1-7 kapituluak):	81.760.700,76	40.612.377,79
Zorraren interesak:	40.100,00	10.269,05
SEC doikuntzak:		0,00
Admin. publikoen ekarpen finalistekin		
finantzatutako gastua:	5.327.049,2	4.136.744,55
Gastu konputagarria:	76.393.551,56	36.465.364,19
BPGaren hazkundearen erreferentzia		
tasa: %3,2	36.662.740,73	35.852.872,34
Arau aldaketen eragina:	900000	809.867,35
Gastuaren muga:	37.562.740,73	36.662.739,69

Kodea	J25/05908	Udala	Arrasate/Mondragón	
CUDO	000.0055.AAA1DH7Z.V.zbr3			
URL	https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA1DH7ZV.zbr3			
Dokumentu hau elektronikoki sinatu da. Honen balioa egiaztatzeko, sartu zaitetz webgunean edo irakurri ezazu QR irudia				



Esp. kodea: 2025DPRE0001

Gaia: 2026ko Udal aurrekontua

Gastu konputagarria - Gastuaren

muga: 38.830.810,83 -197.375,50

• Zor publikoa

Erakunde guztiek bete beharreko helburua izango da abenduaren 31n aurreko ekitaldian likidatutako diru-sarrerara arrunten % 70etik beherako zor bizia izatea (kasu honetan, 2025ko ekitaldikoa).

Arrasateko Udalaren 2026eko ekitaldirako aurrekontuak 37.794.570,27 euroko mailegua aurreikusten du eta zenbateko horrek erraz gainditzen du 2024ko diru-sarrerara arrunten % 70. Ondorioz, zor biziaren helburua **EZ LITZATEKE BETEKO** aurrekontu-proposamen honetan.

ZOR BIZIA

Epe luzerako zor bizia 2025/12/31	210.046,43
Epe laburreko zor bizia 2025/12/31	0,00
Zor bizia 2025/12/31	210.046,43
2026ean aurreikusten den mailegua	38.745.707,26
2026eko amortizazioak	0,00
	38.663.363,54
2025. urtean likidatutako diru sarrerak (kap. 1-5)	40.341.497,77
Zor biziaren %a	96%

ZOR BIZIA		ARRASATEKO UDALA
a	Gaur egungo zor bizia	210.046,43
b	Eragiketa berria	953.317,11
b 2	Eragiketa berria	37.500.000,00
c=a+b+b2	Zor bizia guztira	38.663.363,54
d	2025ko eskubide likidatuak, erag. arruntetan (1-5.kap)	40.341.497,77
e=c/d	Zor biziaren %	96%

9. MAILEGUA

Kodea	J25/05908	Udala	Arrasate/Mondragón	
CUDO	000.0055.AAA1DH7Z.V.zbr3			
URL	https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA1DH7ZV.zbr3			
Dokumentu hau elektronikoki sinatu da. Honen balioa egiaztatzeko, sartu zaitetz webgunean edo irakurri ezazu QR irudia				



Esp. kodea: 2025DPRE0001

Gaia: 2026ko Udal aurrekontua

Lehenago aipatu gisa, alde batetik, IDAE 3 gisa izendatu den mailegua esleituko da 2026an. Berau, orain artean eskatu diren IDAE 1 eta 2 maileguen baldintza beretan esleituko den prebisioa dago. Beraz, interesa %0 izango da, lehen urtea karentzia urtea izango da eta 10 urtean itzuli beharko da. Bestetik, Arrasateko Udalak 2026 ekitaldirako aurreikusten dituen proiektuak finantzatzeko Mailegu bat eskatu beharko du. Mailegua hitzartzeko bi baldintza bete behar dira (17/2012 Legearen 31. Azken Xedapen Gehigarria):

“ Disposición final trigésima primera. Modificación del Real Decreto-Ley 20/2011, de 30 de diciembre, de medidas urgentes en materia presupuestaria, tributaria y financiera para la corrección del déficit público.

Con efectos de la entrada en vigor de esta Ley y vigencia indefinida, la disposición adicional decimocuarta del Real Decreto-Ley 20/2011, de 30 de diciembre, de medidas urgentes en materia presupuestaria, tributaria y financiera para la corrección del déficit público, queda redactada como sigue:

«Las Entidades Locales y sus entidades dependientes clasificadas en el sector Administraciones Públicas, de acuerdo con la definición y delimitación del Sistema Europeo de Cuentas, que liquiden el ejercicio inmediato anterior con aborro neto positivo, calculado en la forma que establece el artículo 53 del Texto Refundido de la Ley Reguladora de las Haciendas Locales, aprobado por Real Decreto Legislativo 2/2004, de 5 de marzo, podrán concertar nuevas operaciones de crédito a largo plazo para la financiación de inversiones, cuando el volumen total del capital vivo no exceda del 75 por ciento de los ingresos corrientes liquidados o devengados según las cifras deducidas de los estados contables consolidados, con sujeción, en su caso, al Texto Refundido de la Ley Reguladora de las Haciendas Locales y a la Normativa de Estabilidad Presupuestaria.

Las Entidades Locales que tengan un volumen de endeudamiento que, excediendo al citado en el párrafo anterior, no supere al establecido en el artículo 53 del Texto Refundido de la Ley Reguladora de las Haciendas Locales, aprobado por Real Decreto Legislativo 2/2004, de 5 de marzo, podrán concertar operaciones de endeudamiento previa autorización del órgano competente que tenga atribuida la tutela financiera de las entidades locales.

Las entidades que presenten aborro neto negativo o un volumen de endeudamiento vivo superior al recogido en el artículo 53 del Texto Refundido de la Ley Reguladora de las Haciendas Locales, aprobado por Real Decreto Legislativo 2/2004, de 5 de marzo, no podrán concertar operaciones de crédito a largo plazo.

Para la determinación de los ingresos corrientes a computar en el cálculo del aborro neto y del nivel de endeudamiento, se deducirá el importe de los ingresos afectados a operaciones de capital y cualesquiera otros ingresos extraordinarios aplicados a los capítulos 1 a 5 que, por su afectación legal y/o carácter no recurrente, no tienen la consideración de ingresos ordinarios.

A efectos del cálculo del capital vivo, se considerarán todas las operaciones vigentes a 31 de diciembre del año anterior, incluido el riesgo deducido de avales, incrementado, en su caso, en los saldos de operaciones formalizadas no dispuestos y en el importe

Kodea	J25/05908	Udala	Arrasate/Mondragón	
CUDO	000.0055.AAA1DH7Z.V.zbr3			
URL	https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA1DH7ZV.zbr3			
Dokumentu hau elektronikoki sinatu da. Honen balioa egiaztatzeko, sartu zaitetz webgunean edo irakurri ezazu QR irudia				



Esp. kodea: 2025DPRE0001

Gaia: 2026ko Udal aurrekontua

de la operación proyectada. En ese importe no se incluirán los saldos que deban reintegrar las Entidades Locales derivados de las liquidaciones definitivas de la participación en tributos del Estado.

Las Entidades Locales pondrán a disposición de las entidades financieras que participen en sus procedimientos para la concertación de operaciones de crédito, el informe de la Intervención local regulado en el apartado 2 del artículo 52 del Texto Refundido de la Ley reguladora de las Haciendas Locales, en el que se incluirán los cálculos que acrediten el cumplimiento de los límites citados en los párrafos anteriores y cualesquiera otros ajustes que afecten a la medición de la capacidad de pago, así como el cumplimiento, en los casos que resulte de aplicación, de la autorización preceptiva regulada en el artículo 53.5 de la citada norma y en el artículo 20 de la Ley Orgánica 2/2012, de 27 de abril, de Estabilidad Presupuestaria y Sostenibilidad Financiera, pudiendo las entidades financieras, en su caso, modificar o retirar sus ofertas, una vez conocido el contenido del informe.»

Beraz, ondorengo bi baldintza bete behar dira:

1.- Aurrezki garbia positiboa izatea 2025eko likidaziotik abiatuta.

Burututako prebisioa honako da:

AURREZKI GARBIA			ARRASATEKO UDALA
a	2025ko eskubideen prebisioa, erag. arruntetan (1-5. kap.)		40.341.497,77
b	2025ko obligazioen prebisioa, erag. arruntetan (1, 2 eta 4. kap.)		33.084.377,62
c=a-b	Aurrezki gordina		7.257.120,15
d	Finantza zama teorikoa, orain artekoa		96.918,12
e	Finantza zama teorikoa, berria		0,00
f=c-d-e	Aurrezki garbia, doitu aurretik		7.160.202,03
g	DGarekin finantzatutako gastu arrunta		0,00
h	Aurrezki garbia, doitu f+h		7.160.202,03

Beraz, honen arabera 2025eko likidazioa positiboa izango da. Hala ere, likidazioa egitean ikusi beharko da.

2.- Zor bizia ez izatea handiagoa 2025eko sarrera arruten %110a baino.

Orain arteko maileguak eta aurreikusten diren maileguak kontuan izanik, beti ere kontuan izanik benetan eskatuko den kopurua ez dagoela oraindik zehaztuta, honako taula hau egin da:

Kodea	J25/05908	Udala	Arrasate/Mondragón	
CUDO	000.0055.AAA1DH7Z.V.zbr3			
URL	https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA1DH7ZV.zbr3			
Dokumentu hau elektronikoki sinatu da. Honen balioa egiaztatzeko, sartu zaitetz webgunean edo irakurri ezazu QR irudia				



Esp. kodea: 2025DPRE0001

Gaia: 2026ko Udal aurrekontua

ZOR BIZIA		ARRASATEKO UDALA
a	Gaur egungo zor bizia	210.046,43
b	Eragiketa berria	953.317,11
b 2	Eragiketa berria	37.500.000,00
c=a+b+b2	Zor bizia guztira	38.663.363,54
d	2025ko eskubide likidatuak, erag. arruntetan (1-5.kap)	40.341.497,77
e=c/d	Zor biziaren %	96%

Beraz, nahiz eta, kopuru oso handia izan, beteko luke baldintza hau. Hala ere, kontuan izan prebisio bat dela eta likidazioa egitean baieztatu beharko dela.

Gainerako baldintza hauek ere bete beharko dira:

- 2025eko likidazioa GUNEAtik bidalita izatea: Hau martxoaren amaierako egitea aurreikusten da.
- Helburu fiskalak betetzea likidazioan: Aurrelikidazioa egin da eta prebisioaren arabera eta emandako aginduak betetzen badira, beteko direla aurreikusten da.
- 2026ko aurrekontuan mailegua eta inbertsioak sartuta izatea: 2026ko aurrekontuan sartu ditugu, maileguak eta inbertsioak.
- GUNEAn finantza tutoretzako espedientea izapidetu beharko da.
- Eskumenari dagokionez, Osoko Udalbatzak onartu beharko du mailegua.
- Finantza zuhurtasunaren printzipioa bete beharko da (prudencia financiera). Kreditu eragiketak printzipio hori bete beharko du. Toki-erakundeek zorpetze-eragiketei eta eratorritakoei aplikatzekoa den finantza-zuhurtasuneko printzipioa definitzen duen Altxorraren eta Finantza Politikaren Idazkaritza Nagusiaren 2017ko uztailaren 4ko Ebazpenean ezarritako finantza-zuhurtasunaren printzipioa betetzen duten proposamenak besterik ez dira onartuko. Eragiketaren interes-tasa zehazteko, gehieneko kostu osoa hartuko da kontuan, finantza zuhurtasunaren printzipioaren arabera, erreferentziatzen hartuta Altxorraren eta Nazioarteko Finantza-ketaren Idazkaritza Nagusiak hiru hilean behin argitaratzen dituen datuak.

Hori da informatu behar dudana,

Kontuhartzailea

Kodea	J25/05908	Udala	Arrasate/Mondragón	
CUDO	000.0055.AAA1DH7Z.V.zbr3			
URL	https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAA1DH7ZV.zbr3			
Dokumentu hau elektronikoki sinatu da. Honen balioa egiaztatzeko, sartu zaituzte webgunean edo irakurri ezazu QR irudia				